

**BILBOKO ETA BILBOTAR JESULAGUNAK
(1604-1767)**

Jesusen Lagundiak Bizkaian izandako lehenengo Ikastetxea suertatu zen ofizialki “Colegio de los Gloriosos Apóstoles San Pedro y San Andrés” deituriko Ikastetxea, arrunki “Colegio de San Andrés” bezala ezagutu zena. Bizkaiko lehenengoa zelako, Hiriburuan bete zuen zereginagatik eta Jaurerriko irakaskuntzan zeuden Aro Modernoko gabeziak estaltzen egin zuen ekarpenagatik merezi du gure oroitzapena.

Gaur Bizkaian eta Bilbon ditugun Aro Garaikideko Lagundiaren beste Ikastetxe handi eta txikiagoen aurrekari estimagarria izan zen San Andres hau. Erran gabe doa, komeni dela beronen historia garaiko testuinguru anitzean begiratzea (1604-1767): Jaurerrian bezala Hiriburuko historian txertaturik, noski, baina era berean Euskal Herriko jesulagunen Irakaskuntzaren historia orokorrean lekututa. Aurreko nire emanaldian esanda-koak dira hemengo ondokoen sarrera (*Karmel*, 227 zenb., 2012-1, 3-32).

Idazlan honen bi emanaldietan —oraingoan eta hurrengoan— jesulagunek Bilbon osatu zuten Lagunartea bera aurkeztuko dut lehenengo, eta bigarren, Bilbon eta Jaurrerian nolako lanak burutu eta zein gisatako harreman eliztar eta sozialak izan zituzten azalduko ditut.

Eta irakurlearen argitasun hoberako, esan dezadan testu-barneko aipamen bibliografikoen xehetasunak hurrengo *Karmel*-en emango dudan bibliografian joango direla.

Jesulagunen “Etxe” eta “Kolegioak”

Aurrera baino lehen, ongi etorriko da Lagundiko Ikastetxeen zenbait berezitasun alde zurretik ezagutzea, zeren Lagundia, beren-beregi Irakaskuntzarako sortua izan gabe, hasieratik bertatik Ikastetxeena arautzen ahalegindu baitzen, Eskolei aparteko nortasuna emanez.

Esan beharra dago, *Kolegio* edo Ikastetxe esatean, Lagundiko terminologia erabiltzen ari naizela, jesulagunen Etxe guztiak ez baitira “Ikastetxe”, eta termino horrek esanahi zehatza du Ordenaren barruan: Lagundian “Etxeak” daude (*casas*) eta “Ikastetxeak” (*colegios*), San Ignaziok Konstituzioetan erabili zuen hizkeraz esateko.

Lagundiko Konstituzioek diotenez, “Etxea” (*casa*) jesulagun jada hezi-eginak biltzen dituen egoitza da, zeregin pastoraletan dabilzanena eta limosnetatik bakarrik mantentzen direnen bizilekua. Alderantziz, “Ikastetxe” (*colegio*) dena ikasle eta irakasleek osatzen duten etxebizitza da, jesulagun-gaientzat edo/eta kanpoko ikasleentzat ikasketak burutuz joateko eratua, eta —datu garrantzizkoa— diru-sarrera, errenta edo legatuak jaso ditza keena.

Hortaz, bi xede ezberdin dituzte, eta bietako bakoitzari dagokion eredu ekonomiko bana. Bi kategoria nagusi horietan

banatuta egon dira Jesus-en Lagundiko egoitza gehienak¹, *Etxe* eta *Ikastetxetan*.

Beren erregimen ekonomiko horregatik, inguruko ekonomiarekin lotuta ageri dira Ikastetxe horiek, eta beraien sortzea ere tokiko borondate sozio-ekonomikotik eta asmo instituzionaletatik dago: herriko nahiz herrira begirako norbaitek edo norbaitzuk jarri behar zituzten Ikastetxea sortu eta mantentzeko ondasunak eta diruak. Gutxieneko berme sozial eta ekonomikorik gabe ez zen Ikastetxe berririk ireki behar.

Kolegio edo *Ikastetxe* izan zen Bilboko, eta horrela deituko zaio Hirurteko Katalogo eta agiri ofizialetan. Antzinako Lagundian (...-1767), bada, Bilbon jesulagunek ez zuten izan *Etxerik* (edo Egoitzarik), *Ikastetxea* baizik.

Bilboko hau Gaztelako Probintziaren barruan Ikastetxe apaletakoa izan zen, Tuterakoaren tamaina-modukoa, eta inondik ere ez Villagarcía de Campos, Valladolid, Salamanca edo Medina del Campo-n Probintzia horrek jesulagun-gaiantzat zituenen neurrikoa. Beste era batera esan da, Bilboko Ikastetxeak, Hiriburuko ikaslegoari ireki zizkion ateak, eta ez zen egon bertan ikasten jesulagun-gairik (salbuespen galduren bat edo beste aparte), ezta halakoei Teologia edo Filosofia irakasteko maisurik ere².

¹ Gehienak, diot, zeren Lagundiko egoitzena bitasun-hori baino konplexuagoa den sisteman eratuta egon baita historian zehar. Ik. *Diccionario Histórico de la Compañía de Jesús*. Madrid. S. v. "Casas". Bide batez esan dezadan, "casa" hitzak bi adiera ere izan dituela, bata guztiz orokorra eta bestea hemen mugatuta eman duguna: 1. Lagundiko edozein egoitza. 2. Zeregin pastoraletarako egoitza (*kolegio*-ri kontrajarria). Hemen bi adieretan erabiliko dut "etxe", eta testuinguruak argituko du kasu bakoitzean hobesten dudana adiera.

² Horrek ez du esan nahi *escolares* edo *eskolarririk* (P. Altunaren terminoa erabiliz esateko), hau da, ikasketa-tarteko "maisutza" bete ohi zuten jesulagun gazterik egon ez zenik: ez ziren asko izan, baina halakorik ere etorri zen Bilboko Ikastetxe hartara.

San Andresko pertsonala lagunditarra zen, eta Lagundiak zuen Ikastetxearen ardura akademiko eta instituzionala. Sortze uneko legatua ere Ikastetxea Lagundiak sor zezan izan zen emana. Lagundiaren Ikastetxea zen hura, juridikoki ez ezik bertatik hedatu nahi zen espirituan ere. Beste Ordena erlijio-soetan gertatu ohi zenaren gisara, Bilboko Ikastetxeko eliz ikonografiak ere garbiki ispilatu zuen hori, E. Ortega Mentxakak erakutsi digunez.

Mende eta erdi pasatxoko bizialdia izan zuen San Andres Ikastetxeak, XVII. mendeko lehen hamarkadan jaio eta Karlos III.ak Lagundia Espainia eta bere Lurraldeetatik iraitzi zuen artekoa. Gaur egun, batez ere Joan Santuen Parrokiak eta Euskal Etnografia, Arkeologia eta Kondaira Museoak daukate hartuta Ikastetxe haren kokalekua; horrela, parrokia horrek izen berria eman zion jesulagunen lehengo eliza berari (1769) eta aurreko San Andreseko klaustroak hartu zuen bere baitan Museoa (1921).

Bilboko irekiera, eta Lagunartearen barne-egitura

Konpainiako Lagunarte bakoitzaren sorrera eta hazkundea tokiko laguntzen eta baliabideen gain egin ohi ziren, horrekin batera Erromako agintari jesulagunek eman behar zituzten fundaziorako baimena eta agindua, eta, azkenik, Lagunartea erlijiosoz hornitzea Gaztelako Probintzia lagunditarrari zegokion.

Jarritako baldintza beteta zegoela ikusita, Udalak berehala ekin zion bere lanari, Lagundiarekin harremanetan jarri eta Gortean Joan Idiakez-en bitartekaritza bilatuz, betiere testamentua lehenbailehen eta zintzoki bete zedin.

Fundaziorako dena alde zegoela zirudienean, ordea, auzotarrak eta batez ere Hiribilduko eliz kabildo eta komentua izan ziren kontra jarri zirenak, gogor jarri ere. Labairu historialariak dioenez, Etxea uzteko eskatu zieten jesulagu-

nei, baina eskeari ezetz erantzun zioten jada egoitza harturik zuten jesulagunek (Labayru 1967: V, 28-29; Malaxechevarria 1926: 76-80).

En vista de la negativa, el clero y la muchedumbre se dirigieron procesionalmente a la estancia de los jesuítas, llevando cruz y armas, y entonando un cántico religioso. Cerraba el cabildo la marcha de la plebe excitada.

Gertakaria tragikomikoa izan zen, baina azken buruan zuzenbidezko gutziak eginda zeudenez (Madrilen, Erroman eta Calahorran), eraikita geratu zen San Andres Ikastetxea (1604). Urte gutxiren buruan jesulagunak ongi bilbotartuak eta onartuta ikus zitezkeen Hiribilduan.

Izaera juridikoa eta egonkortasun soziala Lagunartearen barrutik hasita segurtatzeko, Bilboko honek ere Lagundiak ohi-koak zituen izaera-arauak zaindu behar izan zituen, lanbide eta pertsonalaren aldetik.

San Andres hau Kolegioa izanik, Lagunartekoen lana irakaskuntzarena zen, noski, eta horretarako etortzen ziren bertara Lagundiko apaizak, ikasle eskolariak, nobizio gutxi batzuk, eta baita inoiz anaia laikoren bat ere. Hasiera batean (1628a arte), ikas-prestakuntzaren aldetik, apaiz irakasleak ziren bakarrik Arteak eta Teologia egindakoak, baina handik aurrera apaiz denek Teologia ere egina izango zuten. Hauei zegokien, halako katedrarik sortzean, Filosofia, Morala edo Teologia ematea. Eskolariak, ordea, beren ikasketak denak burutu gabeak izaten ziren, eta Latina edo Gramatika emateko zeregina izaten zuten.

Gehitu beharra dago hemen, Ikastetxe izan arren, San Andres Ikastetxeko jesulagunek pastoral lanik ere egiten zutela: gehienek noizbehinka, irakasle-lanek tarterik uzten zutenean, baina zerrendetan ageri da bestelakorik ere, hau da, osorik pastoralean jardun ohi zuten gutxi batzuek, alegia, "operarios" deituriko apaizak. Irakasleen artean asko dira *operario*, *misio-*

nero edo *predicador* gisa izendatzen direnak. Datua garrantzizkoa da, zeren jesulagunen Ikastetxe hau, horrela, Eskeko Ordenen pastoral-tradiziora hurbiltzen ikusten baitugu, bilbotar oroengana eta Jaurreira irekita.

Apaiz ez ziren Anaia laguntzaileen eginkizuna etxeko lanean izan ohi zen, ia osorik eta bakarrik. Bizpahiru anaia beti egon ziren San Andresen: XVII. mendean hiruko taldea izan zen hau, baina hurrengo mendean, Ikastetxeak eta Lagunartearak gora egin zutelarik, azkeneko mende laurdenean bost izatera heldu ziren. Etxeko lanak beren eskuetan zeuden (*oficios domésticos* izenpean zeudenak: garbiketak eta abar), baina anaia laiko laguntzaileok ardura finagoak eta erantzukizun astunagoak ere hartu zituzten beren gain: atezainak izan ziren eta sakristauak, despentsariak, sukaldariak, diruzainak (*procurador*), iratzarleak, jostunak, baratzezainak, erizainak, etab. Inoiz ageri zaigu, gainera, anaiaren bat eskola-maisu gisa (*Maestro de Escuela*), dotrina ematen, pobreentzako eskolan orduak sartzen edo Lehen Eskola eramaten. Oro har, anaia laikoen egitekoa zen Irakaskuntzak berean segi zezan, Etxea eta etxeako ongi zaindu eta mantentzea, egunerokotasuna nahas-mendurik gabe artatzea.

Bukatzeko, jesulagun-mailari dagokion xehetasunen bat ematea komeni da. Esanda daukagun bezala, jesulagun guztiek ez dute Lagundiarekiko atxikimendu edo lotura-maila bera, horretan azken mailara iristeko *frogantzak* eta berorien ondoriozko onarpenak behar baitira, Lagundiaren aldetik bezala norberarengandik. Hiru edo lau frogantzak egindako gutxi egon zen Lagundiko lehen belaunaldietan, baina gerora arruntagoa izan zen gorainoko ibilera osoa burutzea.

Bilbotar Lagunartean, mailaren aldetik Ikastetxea apal hasi zen, eta Ikastetxeko lehen jesulagunen artean "lau profesako" bi lagun egon ziren, eta horrelatsu iraun zuen horrek denbora batez San Andres-en (1611-1660), ondoko urteetan gora egite-

ko, XVIII. mendean bederatzi izateraino (1714-1720). Lagunarte hau, bere apalean, jakitez ez ezik jesulagun izatez ere heldutasunera iritsi zen, beraz.

Oro har, Ikastetxeko Lagunartearen bizkarrezurra apaizek eta anaia laguntzaileek osatu zuten, esandako nabardura horiekin.

San Andreseko bizilagun jesulagunak

Bilboko Lagunartea ez zen izan Gaztelako Probintziako handienen artekoa, esan dugu. 1611n zazpi lagunekoa zen, eta XVII. mendean ez zen sekula 11 lagunetik gorakoa izan; XVIII. mendean, ostera, hortik gora ageri zaigu, azken hogeitau urteetan 16/17 jesulagun izateraino.

Urrun dago hau, beraz, Bilbo/Abandoko San Frantzisko komentuan gertatzen zenetik, beronetan 57, 60 eta 90 laguneko Anaiarteak aurkitzen baititugu (hurrenez hurren, 1680, 1700 eta 1768ko urteetako datuen arabera). Baina, era berean, urrun dago hori, jesulagunen Gaztela Probintziako Ikastetxe handietatik (non jesulagun ikasle gazteak ere biltzen ziren). Estatistikek diotenez, Salamancako jesulagunen Ikastetxean ikasle teologoekin Lagunarte handia bildu ohi zen, 50 (1600), 69 (1700) edo 85 lagun (1764); Villagarcía de Campos-eko Nobizio-Etxea (Valladolid) ez zen atzean geratzen: 46 (1600), 76 (1700) eta 121 lagun (1764).

Etxe handi hauetan euskal herritarrek zuten presentzia begira daiteke, gainera: hutsaren hurrengo zen Salamancan, 1600ean (3 euskaldun), 1700ean zerbait gora egin zuen horrek (14), eta deigarria da nola 1764an 31 euskal herritar diren (85 lagun artean). Villagarcían antzeko zerbait gertatu zen euskal herritarrekin: hemen ere 3 lagunekin hasten dira (1600), 1700ean 24 izatera iritsi eta 1764an 34taraino heldu (121 lagun artean). Oro har, beraz, euskal herritarren presentzia handiago ageri zaigu Antzinako Langundiaren azken hamarkadetan, segur aski Probintzia osoak ere gora egin zue-

lako; baina, edozein kasutan, bi Ikastetxe handi horietako euskal herritartasuna bere ehuneko erlatiboetan ziurki sendoago gertatu zelako.

Kanpora joandako euskal herritar eta bilbotarren ondoan, erbestetik hona etorritakoak gogorarazi behar dira, argigarri gertatzen baitzaigu Bilboko jesulagunak nongoak genituen jakiteko.

Bilbon, 1611-1764-urte artean, San Andreseko 521 egonaldi pertsonal daude Hirurtekoetan jasota; lagun batzuek hainbat aldiz errepikatu edo luzatu zuten egonaldia Bilbon, eta kopuru horretan egonaldi bakoitza zenbatu dugu. Bertan bizi izandakoen 300 egonaldi euskal herritarrenak dira (hortaz, % 57,58), eta gainerako 221 kanpotarrenak (% 42,41).

Antzinako Lagundiaren Gaztela Probintziako demografia historikoaren arabera ez genituzke inolaz ere horrelako ehunekoak esperoko, euskal herritarrek askoz ere portzentaia txikiagoak izan baitzituzten Probintziako pertsonalean. Arrazoi ezberdinengatik, nahiago izan zuen Lagundiak, zegokien portzentaiei gainera, Bilbo neurri handiago batean euskal herritarrez hornitu, nahiz eta, ikusiko dugunaren arabera, Nagusiak gehienbat kanpotarrak izan ziren

Lagundiko euskal herritarrak

Bilbok Konpainiari jesulagunetan egindako ekarpena eza-gutzeko datu gutxi batzuk bilduko ditugu hemen.

Antzinako Lagundian zenbatu ahal izan ditugun jesulagun jaiotzez bilbotarrak 99 izan ziren (1556-1767), Antzinako Lagundi berean Nafarroako iruindarrak 155 ziren bitartean. Bizkaiko beste herrietako kopuruak oso ezberdinak dira: Bermeok bi jesulagun eman zituen, Gernikak 8, Durangok 14, Lekeitiok 33 (bertan jesulagunen Ikastetxea zegoen) eta Urduñak 13. Bizkai-

ko ia 70 herritakoak izan ziren Antzinako Lagundiko 316 bizkaitarrak. Hortaz, alde horretatik, Bilbo da Antzinako Lagundian alde handiarekin Bizkaiko herririk jesulagundarrena.

Jesulagun bilbotar eta bizkaitarrak ez ziren bizi izan Hiribilduan edo Jaurerrian bakarrik; alderantziz, Gaztelako Probintziaren barrutiko beste Etxe eta Ikastetxeetan ere eman zuten bizialdi labur edo luzeagorik, batzuetan erantzukizun handiko postuetan (agintari nahiz irakasle gisara, esate baterako).

Antonio Araotz-en historia aparte utzita (1515-1573), Euskal Herriak Antzinako Lagundian eman zituen Prepositu Probintzialak sei izan ziren (M. Lezaun, M. Arbizu, F. Jebier, A. Zarte, J. A. Estañan eta F. I. Idiaketz), denak 1658tik aurrerakoak eta guztiak nafarrak. Probintzia erlijiosoaren barruan, Gaztela-Galizietako bizpahiru Etxetan bakarrik izan ohi ziren Nagusi euskal herritarrak, aldi berean.

1749tik aurrera erabateko aldakuntza ageri da euskal herritarren presentzia mugatu horretan: azken hogeitaz eskasetan gora egiten du horrek, eta 1758an Euskal Herritik kanpoko berderatzi Etxetako Nagusiak euskal herritarrak gertatu ziren. Bilbotarrik apenas ageri den, ordea, Etxeetako agintari gisa: Angulo, XVII. mendean; Urkixo eta Uriarte, XVIII.ean. Beharbada, azpimarratzekoa da Ig. J. Urkixoren kasua: 1730-1743. urteetan bost Etxetako Errektore gisa aurkitzen dugu bilbotar hau, Pontevedra, Burgos, Santander, Palentzia eta, batez ere, Valladolideko San Ambrosio Ikastetxean (1743).

Gure San Andres-era itzuliz, esan dezadan hemen bertan egon zela, noski, bizkaitar eta bilbotarrik, betiere erbesteko jesulagunekin batera. Begiratzekoa gertatzen da, nola Ikastetxe-ko pertsonalaren aldiro aldiro aldakuntzek erakusten diguten Ikastetxearen lehen maila bateko bertakotasuna.

Bilboko Errektoreak

Oro har esan behar da oso tentuz hautatu ohi zirela San Andreseko Errektoreak (Ikastetxeko Nagusiak, alegia). Hautapen-izendapena ez zen izaten bertako Lagunek egina, nahiz eta bertakoek haitagai-proposamenak egin zitzaketen. Izendapena bera Erromatik etorri ohi zen, hemengo Probintziarekin eta agian Bilboko jesulagunekin hitz egin ondoren, izendapen-prozedura ongi araututa zeukan Lagundiak eta (*Constituciones* 171 (326. art.), 323 (740-741. art.). 740 eta 741. art.). Erromatik etorri ohi ziren izendapen hauetarako pisu nabaria zuten, noski, Gaztela Probintzian Nagusi zirenek, izendapen-aurreko aholkuak eman eta proposamenak egitean.

Hirurteko *Catalogi Primi*-etan Bilboko 44 gobernaldi aipatzen dira (1611-1764): horietako 35etan erbestean jaiotako jesulagunak dira Errektore San Andresen (aurretik lehenengoa izandako Gaspar Sánchez, Cascanteko semea, kontatu gabe), eta 9 kasutan Euskal Herrian jaiotakoren bat; hauen artean, berriz, hiru dira bizkaitarrak, tartean billbotar bat, bakarra, ageri dela, Aita Antonio Landaida (1637-1690), 1681ean.

Beraz, ia %80 kasutan kanpotarrak dira Nagusi, eta euskal herritarrak %20 pasatxoan. Argi dago Errektoretarako hautagaien euskal bertakotartasunak ez zuela indar berezirik izendapenak egitean (Jaurerriari zegokion inkulturazioaren kalte-tan, segur aski), eta bestelako arrazoiak nagusitzen zirela (hautagaiaren aginte-balio pertsonala, prestakuntza akademikoa, Probintziako beste egoitzetan jasotako eskarmentua, etab.).

Errektoreen soslaiia ematean, beti dira berauek "Irakasle", XVII. mendean batez ere Latina, Arteak eta Gramatika emanez, eta denborak aurrera egin ahala (batez ere XVIII. ean), Morala, Filosofia eta Teologia emango dutenak. Suma daiteke, hortaz, San Andres-eko irakaslegoak hor ere gora egin zuela bere kali-

tate eta prestakuntzan, garaian goikoenak ziren ikasgaiak ematen zituztela: Errektoreen soslaia gero eta buruz jantziagoa ageri zaigu; baina, hori gorabehera, hainbat aldiz Errektoreok predikari eta aitor-entzule ere izan ohi ziren.

Bilbotarrak erbestera ere

San Andres garrantzizko Ikastetxea izan zen Bilbon XVII-XVIII. mendeetan, eta indar beteko Probintzia erlijiosoan zegoenez, irakasle onak ere izan zituen. Eta ez hori bakarrik, Hiribilduan ongi errotu zenetik, Bilbo gai izan zen, bere seme jesulagunen bidez Probintziako Ikastetxe handienetan teologo onak izateko, Salamanca nahiz Valladoliden. Hauetakoak izan ziren Barko, Ordeñana edo Castaños, esate baterako. Probintziako egiturak zekarren zerbait zen nolabaiteko “diaspora” hori, Ordena erlijioso gehienetan, beren nazioartekotasunagatik, hagitz arrunta izan dena.

Gabriel Barko (Bilbo, 1694-Bolonia,1771) San Andres Ikastetxean eskolatu zen eta sorterrian bertan sartu Lagundian. Ohiko ikasketa-urteen ondoren hainbat Ikastetxetan egon zen Irakasle gisa eta Teologia ematen, eta 1738tik aurrerako urteak Salamancan eman zituen, han ere Irakasle, harik eta erretiroa hartu zuen arte (1754) eta, azkenik, erbestera zuten arte (1767). Irakasle-hizlari aparta izan zen, nahiz eta idatzitako hainbat lan argitara gabe geratu zitzaizkion. Probintzian itzal handiko gizona izan zen: “entre nosotros gozaba el honor de ser mirado como el maestro de toda la Provincia y de todos los maestros de ella” (Luengo; Sans 2011).

Migel I. Ordeñana (Bilbo,1716-Bolonia, 1784), Bilbon jaio eta Bilbon egin zen jesulagun, hamabost urte bete berri zela. Gaztelako Ikastetxe handietan lan egin zuen Filosofia emanaz (Salamanca, Valladolid, Medina del Campo), eta, azkenik, Salamancan irakatsi zuen Teologia (1754-1767). Erbeste zaila izan zuen Aita Ordeñanak, osasunak ere batere lagundu ez ziolako.

Ez zuen deus argitara eman, baina 54 liburuki omen daude hark idatzita Salamancan, eta sei Loiolako Artxiboan. Luengok hilberriaren notiziak ematean zera dio (Sans 2011; Malaxechevarria 1926: 565-567):

Tantos años dedicados a la enseñanza de esta sagrada ciencia, acompañados de un grande y constante estudio y de un ingenio profundo, delicado y sutil, hicieron al P. Ordeñana un Maestro consumado de Teología. Y añadiéndose mucha gracia y limpieza en el hablar y cultura en el estilo, le formaron un Doctor que era siempre oído con gusto y complacencia, con respeto y con aplauso en el gran concurso de Teólogos de la Universidad de Salamanca. Y yo puedo asegurar que he visto pocos, y acaso ninguno, que juntase tanta brillantez, prontitud, viveza, novedad, robustez y vigor en el argumento, con tanto esplendor, desembarazo y magisterio en la cátedra.

Migel C. Castaños Bilbon jaio zen eta, Italian bizi ondoren, sorterrian hil (1726-1802). Teologia irakaslea zen Castaños, eta Lagundia Penintsulatik egotzi zutenean Irakasle jasoenetakoa; Bolonian ere zeregin berean jarraitu zuen. Erbestealdia iraganda itzuli zenean (1798), Bilboko familia ezaguneko izanik eta zituen dohainengatik, Bilboko eliz munduan estimu handian bizi izan zen (Malexechevarria 1926: 568-569).

Bilbon bertoko jesulagun maisuak

Erbestean jardundako bilbotar horien ondoan, baina, Bilbon bertan lan egin zutenak interesatzen zaizkigu San Andres-eko historian, Euskal Herrian nonahi jaioak edota erbesteko semeak izan. Hiribilduan ekarpenik onena edo egin zutenak gomutatzeraz.

Jakin badakigu, eraikitzean sinatutakoaren arabera, Bilbon hasieratik bertatik jarri behar zela dotrina eta lehen eskola izango zena, baina erabilitako agirietan zeregin horren zuzeneko ardura izan zutenen izenak falta zaizkigu, segur aski eskola horretako lana kanpokoren baten eskuetan utzi ohi zelako (Malaxechevarria 1926: 224). Ikastetxeak bere eraketan heldutasun hobea izan zuenean, ezagutzen ditugu zenbait jesulagun maila honetako hezkuntzari heldu ziotenak: N. Lekaroz iruindarra (1743, 1746, 1749), A. Otxoa ondarroarra (1743, 1746) edo J. G^a de Artica nafarra (1743).

Dena den, San Andreseko jesulagunen indarrak Humanitate, Arte, Filosofia eta Teologian eman ziren gehienbat. XVII. eko azkenaurreko hamarkadan Ikastetxeko irakats-egitaraua bere eremuetan ugaritu zen arte. 80 urtetan gramatika eta latina izan ziren Ikastetxean nagusi, eta, beraz, pertsonala ere horretara emana egon zen.

Sail honetan lan egin zuten bereziki lehen urteetako Errektore batzuk: Gaspar Sánchez, Diego Ganboa edo Antonio Aranak. Azpimarratzekoa da gutxi batzuk egonaldi luzeagoak egin zituztela San Andresen; lau izen gogora daitezke behintzat, urte-aldi jakinetan apenas etenik gabe Bilbon jardundakoak: Fermín Bergara eneriztarra (1622-1658.eko Hirurtekoetan ageri zaiguna), Jose Lorentzo Zabaleta (1669-1690en tartean), Francisco Osma errioxarra (1693-1723) eta Juan Antonio Vera soriarra (1700-1723), *Catalogi primi* deituetan ageri denez. Kasik mende osoa bete zutela esan daiteke, beste zenbait irakaslekiderekin batera (Malaxechevarria 1926: 284-285).

Filosofiaren irakaskuntza XVIII. mendeko lana da San Andresen (1708): hiru gela mantentzeko hitzarmena egon zen fundaziokoan (Logika, Fisika, Metafisika); baina, Hirurteko albistegietan, Filosofiako irakasleak lehenagotik ageri dira (1665,

1669) eta etenik gabe 1681etik aurrera, jada Teologia Moral eta Teologiarekin batera.

Irakasle berek ematen zuten sarritan Gramatika, Filosofia eta Teologia, eta XVIII. mendean denetarako prestaturik dagoen pertsonala aurkituko dugu, oro har Probintzia erlijiosoko goraldi demografikoa eta egoera jantziagoa ispilatuz, noski. Bilboko Ikastetxea ere irabazten atera zen, alde horretatik.

Probintziako bururik prestatueneke beste tokitan izaten zuten beren katedra, baina Bilbo ez zen guztiz atzera geratu. Malaxetxebarriak zerrenda nahiko zabala aipatu zuen (Malaxechebarria 1926: 347, 356-360), eta Filosofia nahiz Teologia ematen Bilbon bizialdi luzeagoa izan zutenak gogorazaziko nituzke: Manuel Ibaizabal bilbotarra (Hirurtekoetan emana, 1690-1705), Joan A. Goitia bergararra (ib., 1714-1720) edo Bartolome Jauregi bergararra (ib., 1700-1737).

Oro har, baliozkoa zen pertsonala aldi bertsuko zeregin ezberdinetan ibili ohi zen, San Andreseko jesulagunak ugariago ere bazirelako. Bilbon bertan eta erbestean irakasle izandako zenbait bilbotarren idazki teologikorik bada artxiboetan, argitara eman gabe eta batzutan autoretza argirik gabekorik ere (Ibarra, Uriarte, Viar) (Malaxechebarria 1926: 509-513).

San Andres Ikastetxean irakasaldiren bat emandako kulturako izen leinargirik egon da, eta aipatuta utzi behar dira hemen: ikusiko dugun hurrengoan Aita G. Henao euskal historialari valladolidarra; Aita Agustin Basterretxea lekeitiarra (1700-1761), Jesusen Nekaldiari eskainitako bertsoengatik hain herritarra izan dena, Bilbon bizi izan zen Filosofia (1729-1732) eta Teologia (1737-1738) irakasten. Gisa berean, euskal idazle sonatuago batek izan zuen lekurik San Andresen, Agustin Kardaberazek alegia (1703-1770): Gramatika irakatsi zuen (1731-1734), gero Iruñe, Azkoiti eta Loiolara joateko.

Jesulagunak Bilboko gizartean

Lagundiaren Euskal Herriko Ikastetxeen historia orokorra falta zaigu, hemen Bilbokoaren kasuan so egindako ikuspuntutik begiratuta behintzat, hau da, Konpainiak gizonetan egindako ekarpena aztertuko lukeen historia. Malatsetxebarriaren monografia (1926) bizi-bizirik dago oraindik; baina hark ez zuen izan modurik Sans-ek eskueran jarri digun datu-baseaz baliatzeko. Irakaskuntzako pertsonal lagunditarraren zenbatekoa eta nolakoa jakiteko *Catalogi* deituak daude, urtez urte eta etxez etxe oraindik ere aztertzeke.

Hemen Bilbokoaz zerbait esaten saiatu naiz, eta hurrengorako geratzen da, pertsonal horrek egindako lana zein izan zen zehazkiago begiratzea.

Guztiok dakigu, Aro Garaikidean Lagundiak Bilbon eskaintako Irakaskuntzak zenbaterainoko eta nolako tamaina eta kalitatea izan dituen, Irakaskuntza ertainean eta batez ere Goi-Irakaskuntzan. Aro Modernoak ez zuen izan halakorik, baina Hiribilduko gizarte zibilak mende bete eta bi herenetan San Andres Ikastetxea izan zuen hezibide-zerbitzua modu berritu eta klasikoan jasotzeko, garai haietako modernotasuna zekarren Eskola mota, Europan bezala ziharduena: Humanitateak artatuz eta Zientzia berrietako lehen urratsak ere gutxi-asko gogoan hartuta.

Hori ahalbideratzeko, irakas-antolakuntza eta irizpide garbiak zituen Erakunderen bat behar zen, irakaslego ongi prestatuarekin Bigarren Mailako Irakaskuntza sustatu eta berari eusteko. Lagundiak jarri zion hori eskueran Bilbori, lehenagotik zetorren Eskeko Ordenena osatzen zuela (Uribe 1996: 290 eta hurr.).

Esandakoen ondoren, Ikastetxeko irakasgaien egitaraua –finko eta aldakorra– zehazkiago ezagutzea falta zaigu hemen,

eta, irakaskuntzatik kanpo, jesulagunen gainerako lantegia ere bai. Hurrengo batean esango dugu horietaz zerbait, guztiaren loraldirik onenetik (c. 1750) Lagundiaren ondoko deuseztape-na artekoa besarkatzen dugula (1767).

Joseba Intxausti.